

KARMENGO AMAREN ESKAPULARIOA

Begoñako Ama, Arantzazuko Ama, Estibalizko Ama, Antiguako Ama, Ainhoako Ama, Leireko Ama, Arrateko Ama, Ziortzako Ama... Zeruko Amaren argazki distiratsuak dirudie...Zenbat izen eder darabilzan kristau erriak Jesusen Amagoratu ta samurtasunez maitatzeko. Erri bakoixaren barnetik urteniko poz ta intziri, esker on ta erreguen oihartzun bizi besterik ez ditugu ain izen eder ta irudi zoragarriak Jaunaren Ama ohoartzeko. Badau kristau erriak Jesusen Ama omentzeko beste izen polit ta irudi maitagarri bat be: Karmengo Ama. Izena Israelgo Karmel menditik jatorko. Eta Karmengo Amaren irudian, ezkerreko eskuan Ume Jesus daroa ta eskumako eskuan, ostera, Eskapulario santua. Kristau askori biotz-zirrara damosku Karmengo izenagaz Andra Maria gorestea. Ortxe bai ikusten dogula bilduta Jaunaren Amaren mezu zerutiarra. Karmengo Amaren irudiari begiratzen badeutsagu, beste explikaziño barik, bein eta barrero somatzen ditugu Jesusen Amaren berbak Kanako zerbitzariei: "Egizue Jesusen esana". Ta bestetik, Eskapularioaren bidez, Mariaren samurtasunez heteriko bitartekotasuna sentitzen dogu. *Beti daukagu Andra Maria geure alde.* Bai orain eta bai eriotzako orduan. "Bakardadearen orde, lagunarterik zoragarriena. Estutasunaren orde, bake santua. Nazkaren orde, alaitasun eder bat. Zerua lurraren gainetik eta ondoren. Eta eriotzaren garaille: Bizia. Betiko Bizia". Orixe besterik ez deusku gogoratzen Karmengo Eskapularioak. Vatikanoko II. Kontzilioak eskatzen dau "asko maitatzeko Eleizak



mendetan zear Andra Mariaganako deboziñoak eta praktikak”. Zeintzuk dira Eleizak onartutako deboziño eta praktika orreek? Kontzilioa amaitu ondoren, Ameriketako Santo Domingo errepublikan, Andra Mariaren omenez egindako Kongresura bidaldutako kartan, Pablo VI.ak argi esaten dau zeintzuk diran Andra Mariaganako deboziñorik errikoiak eta maitagarrienak. Bata, Errosario santua, eta bestea Karmengo Amaren Eskapularioa.

Lourdes eta Fatima

Andra Maria 18 bider agertu jakon Lourdesen Bernardette Soubirous deunari. Azkenengoz, Karmengo Amaren egunean, agertu jakon. Au da, 1858ko uztailearen 16an. Egun orretan ez eutsen ezertxo ere esan Zeruko Amak Bernardette neskatillari. Baiña iñoiz baiño ederragoa ikusten dau Bernardettek Andra Maria. Tarbes eta Lourdesko Théas Gotzainak, 1958ko uztailearen 10ean egindako karta pastoralean, itaun oneek egiten ditu: Zergaitik aukeratu ete dau Andra Mariak Karmengo eguna Bernardetteri azken aldiz agertzeko? Ez dau nai izango erakutsi Andra Mariak oso biotzeko jakola Karmengo izenagaz guk maitatu ta gorestea? Ez dau naiko adierazi oso maitagarri jakozala Karmengo Ordenako santuak eta euron espiritualitatea? Fatimako iru umetxoak be, Zeruko Ama azkenengoz agertu jakenian, Karmengo Eskapularioa eskuetan daukala ikusten dabe. 1917ko urriaren 13an izan zan agerpen ori. 1950. urtean, Sor Luziari galdetu cutsenean zergaitik agertu ete jaken Zeruko Ama Karmengo Eskapularioaz. "Eskapularioa guk eroatea nai daualako", izango da bere erantzuna. Aurten beteten da Karmengo Eskapularioaren 750. urteurrena. Ordutik ona, Jaungoikoak daki zenbatek eroan izan daben fedez eta maitasunez bular gainean Karmengo kutuna. Pobreak eta aberatsak, andiak eta txikiak, santuak eta pekatariak, eleiztar arruntak eta Erromako Aita santuak. Besteak beste, Juan Pablo II.ak. Eta eskertzekoa beronek, aurtengo martian, Karmengo Ordenako Aita Jeneralari, Eskapularioari buruz idatzitako karteak. Oso interesgarria.

A. Olea